

IRABAZI ITURRIAK

Gure irabazi iturriak ordainketa bakarraren bidezko diru sarrerak izango dira, hau da, bezeroak ordainketa bakarra egingo dute behar duten produktua erosteko. Diru sarrerak aktiboen salmentatik lortuko ditugu, fisikoa den produktu baten eskubideak saltzean alegia.

Artikuluaren prezioak finkoak izango dira. Hona hemen produktu bakoitzaren prezioa:

- Izerditzeko jertseak 40-45€ inguru, modeloaren arabera.
- Kamixetak 30€ inguru.
- "Leginsak" 10€
- Txandalak 25€
- Sandaliak 45€
- Motxilak 60-70€
- Biserak / neguko txapelak 15-20€

Gure enpresaren asmoa ez da gure produktuek merkatuko merkeenekin lehiatzea prezioaren eskuragarritasunari dagokionean; aitzitik, gure helburua bezeroei kalitate goreneko arropa jasagarria eskaintzea da. Merkatuan lehiatzeko Porterren lehia estrategietako bat erabliko dugu, desberdintze estrategia, hau da, produktua lehiakideen produktueatik nabarmen desberdindu dugu. Horrela produktuak monopolio antzeko boterea lortuko du.

Azkenik, aipatu, gure dendara sare sozialetatik sartuz gero %10eko beherapena aplikatuko dela egindako erosketan.